

Getozka



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Ikasi berria dut bere izena. Azkue Euskaltzaindiko lehen lehendakaria izan zenak egindako ohar batzuetan aipatzen dituen eta Londresen omen dauden Bonaparte printze eta euskal hizkuntzalari frantsesaren paper batzuetan azaltzen da izen hori. Getozka izeneko landareaz ari naiz, *Portulaca oleracea*. Ez nuen ezaguna. Jakin-mina galgalka, “ketozkia” eta “ketorkia” ere deitzen dela irakurri dut. Larremendik bere 1745eko hiztegiaren “ketozkia” izena jaso du. Bizkaiko flora-katalogo batean “ketorkia” izena ere aipatzen da. Beraz, ez da bart arratsean Mediterraneoan gabarra batean zeharkatu duen etorri berria...

Jatorria India eta Persia arteko mundu horretan duela badiote ere, aspaldiko ezaguna da Asiako eta Europako hegoaldeetan. Nik bai ikusi izan dudala Mediterraneoaren ekialdeko azoketan... Ez nekien zertarako erabiltzen zuten: sendagai, jaki, espezia... Orain badakit: denetarako. Entsaladan hosto berde bixi gisa, zopa loditzeko bere muzilagoari esker... Eta osagai bikaina da: ziazerbak (*Spinacea oleracea*) baino antioxidatzaile eta zenbait arrain urdinek baino ome-



Ez da urte asko gure baratzeetako “belar txartzat” jotzen dugula getozka (*Portulaca oleracea*).

ga-3 gehiago ditu, eta A, C eta B multzoko bitamina ugari du zenbait mineralekin batera (burdina, magnesioa, kaltzioa...).

Ez da urte asko gure baratzeetako “belar txartzat” jotzen dugula. Egia da urteetan ezagutu izan dugula, han-hemen, baina gaur egun zenbait baratzeetan ikaragarritzko izurritea da; gero eta gehiago ikusten da; ez landatua, belar inbaditzaile gisa, geuk jarri gabe sortua eta oparo ugaritzen dena. Belar “txarra” alegia. Ez da lurretik asko altxatzen, nahiago du lurraren gainean hedatu.

Zorten gorriak eta hosto berdeak, denak mamitsuak dira: pottolo biguin urtsuak. Lurpean dauden haziak 40 urte itxaron dezakete baldintza egokiak etorri eta ernatu arte. Egoskorra da, getozka arraioa. Eta jende askok galdetzen dit nola kendu, nola demontre desagerrazi. Irakurraldi hauek erakutsi didate zein erantzun eman: jan ezazu. Eta ez, asko gustatuko bazaizu ere, ez dena jan eta akabatu. Utzi beti lur zatitxoren bat beretzat, eta gozatu! Belar txarra, belar ezin hobea! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Kontsultatu ditut liburuak eta Interneteko webgune eta hiztegiak baina ez dut beheko zerrendako loreen euskarazko izenik aurkitu. Laguntzerik bazenu...

Rakel Sueskun Eguaras (Antsoain)

Kaixo Rakel. Landare guzti hauek arraroak edo oso arraroak dira Euskal Herrian, eta ez da harritzekoa izenik ez aurkitzea. Batean eta bestean saiatu naiz, baina ez dut bat berarena ere aurkitu. Hala ere inguruko hizkuntzetan eta izen zientifikoaren esanahiak-eta kontuan hartuta, izen batzuk proposatuko dizkizut.

IZEN ZIENTIFIKOA

Paradisea Liliastrum
Androsace villosa
Echinospartum horridum
Caltha palustris
Helianthemum nummularium
Aster alpinus
Soldanella alpina
Fritillaria lusitanica
Nigritella nigra

GAZTELANIAZ

Paradisea
Cantarillo villosa
Erizón
Verruguera
Cespedilla
Aster alpino
Soldanella
Meleagria
Nigritella

EUSKARAZKO PROPOSAMENA

San Brunoren Lirioa
Androsaze bilotsua
Triku otaka
Proposamenik ez
Proposamenik ez
Mendiko asterra
Proposamenik ez
Proposamenik ez
Izar beltza